

GOBIERNO DE NAVARRA

HACIENDA Y POLÍTICA FINANCIERA

PRESIDENCIA, FUNCIÓN PÚBLICA,  
INTERIOR Y JUSTICIARELACIONES CIUDADANAS E  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

CULTURA, DEPORTE Y JUVENTUD

DERECHOS SOCIALES

DESARROLLO ECONÓMICO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

DESARROLLO RURAL,  
ADMINISTRACIÓN LOCAL Y MEDIO  
AMBIENTE

## Beaumont kontseilariak "guztiei entzuteko" prest dagoela adierazi die administrazioko sindikatuei

*Ordu bete eta erdiko bilera egin du sindikatuekin; Barkos Lehendakaria ere han izan da hasieran.*

Viernes, 07 de agosto de 2015

M<sup>a</sup> José Beaumont Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak ordu eta erdiko bilera izan du gaur goizean Foru Komunitateko administrazioak ordezkariak duten sindikatu guztiekin. Uxue Barkos Nafarroako Lehendakariak ere parte hartu du bileraren hasiera.



Barkos Lehendakaria eta Beaumont kontseilaria sindikatuekin egindako bileran.

Nafarroako Jauregian izan da bilera, eta deitutako erakunde guztietako ordezkariak izan dira bertan. Hau da: AFAPNA, ANPE, APF, APS, CCOO, CSI-CSIF, ELA, ESK, LAB, SATSE, SMN, SPA, STAJ, STEE-EILAS, UGT, USAE eta USO.

Guztiek ere eskerrak eman dizkiote Nafarroako Gobernuari, bilerarako deialdia egiteagatik legegintzaldia hasi eta egun gutxira. Halaber, ordezkariak duten sindikatu guztiekin (Mahai Orokorrean egon zein ez) halako bilera bat egiten den "lehen aldia" dela nabarmendu dute. Bestalde, Barkos Lehendakariak eta Beaumont kontseilariak eskerrak eman dizkiete sindikatuetakoa ordezkariak bilerara joateagatik, batez ere abuztua oporren hilabetea dela kontuan izanik.

Barkos Lehendakariak Nafarroako Gobernuaren helburu nagusia aurkeztuz hasi du bilera. "Larrialdi sozialeko egoerari erantzutea" da helburua. Halaber, langileen aldarrikapen ekonomikoez jabetu dela aitortu du, esate baterako, datorren urtean soldata % 1 igotzea edo ordaintzeke dagoen 2012ko aparteko ordainsaria ordaintzea. Barkosek esan duenez, "aurrekontuaren mendeko" gaiak dira. Sindikatuetakoa ordezkari gehienak ados agertu dira larrialdi sozialari erantzuteko behararen inguruan, baina Nafarroako Gobernuak langileak eta beren aldarrikapenak albo batera utzi gabe.

Beaumont kontseilariak "erakunde guztiei entzuteko" nahia adierazi du eta, horretarako, sindikatuen hauteskundeetan lortutako ordezkariak nahiz dagoeneko ezarritako mahai orokor edo sektorialekiko koordinazioa kontuan hartzen duen sistema bat antolatzeke lankidetzan aritzea eskatu

die sindikatuetakordezkariei.

Horrez gain, M<sup>a</sup> José Beumontek datorren urteko Lan Eskaintza Publikorako proposamenak datozen asteetan bidaltzeko ere eskatu die sindikatuei. Kontseilariak konpromisoa hartu du urriaren hasieran sindikatu guztiekin egingo duen beste bilera batean ordezkariekin batera proposamenak begiratu eta aztertzeko.

### **Programa-akordioa**

Bileran, gai horri lotutako eta legegintzaldirako Geroa Bai, EH Bildu, Podemos eta Ezkerra alderdiek izenpetutako [Programa-akordioan](#) jasotzen diren proposamenak ere azaldu dizkie Beumont kontseilariak Nafarroako Gobernuo langileen ordezkarietara.

Horien artean nabarmentzen dira "urritasunaren eta behin-behinekotasunaren mailak pixkanaka eta nabarmen murriztea", hezkuntzan, osasungintzan eta gizarte-zerbitzuetan batez ere; "azken urteotan murriztutako langileen zerrendak" handitzea, eta "igarotako krisi-urteetan galdutako erosteko ahalmena" berreskuratzea.

Halaber, Programa-akordioak administrazioaren erreforma gauzatzea jasotzen du, "profesionaltasuna, gaitasuna, eraginkortasuna, herritarrekiko irekitasuna eta funtzionarioen parte-hartzea" irizpideak ardatz, administrazio-egituraren "lanpostuak, eta lan- eta hizkuntza-profilak definituta", "merezimedian, gaitasunean, esperientzian eta jardueran oinarritutako benetako ibilbide administratiboa" ezarrita eta zuzendaritzako ardurak (zerbitzuen zuzendaritzak eta idazkaritza tekniko orokorrak) "merezimenduaren eta gaitasunaren" arabera esleituta.